

---

## HERNANI. UDAL AURREKONTUAK 2016: Proposamenak lehenesteko saio irekiak

---

-2015-09-28. SAIOAREN AKTA-



### **BILERAREN XEHETASUNAK:**

- Bilera zenbakia: 3
- Xede taldea: Lurralde antolaketa, mugikortasuna, errepideak, zerbitzuak, etxebizitza eta ingurumena.
- Data: 2015-09-28
- Lekua: Beterri
- Hasiera ordua: 19:00
- Amaiera ordua: 20:30

### **DINAMIZAZIOA:**

- Parte hartzaile kopurua: 6 herritar, 5 gizon eta emakume 1. Teknikari 1 eta 2 ordezkari politiko.
- Dinamizatzaileak: Arkaitz Martinez de Albeniz eta Maitane Barrenetxea

## 1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA

Luix Intxauspe Alkateak saiora bertaratutakoei ongi etorria egin die. Erabaki Hernani Decide prozesuak azken fase erabakitzaileari ekin dio uda ondotik. Herritarren artean Udal Aurrekontuko 500.000€ eztabaidatu eta erabakiko dira.

Prozesu hau garatzeko Aztiker Soziologia Ikergunea ari da dinamizazio lanetan, beraiek dira prozesu honen metodologia prestatzeaz arduratu direnak.

Alkatearen aurkezpenaren ostean Maitane Barrenetxea Aztikerreko teknikariak gaurko saioaren nondik norakoak azaldu ditu:

1. **Aurkezpena eta prozesuaren errebasoa:** Alkateak eta Aztikerreko teknikariak prozesu osoaren errebaso labur bat egingo dute.
2. **Egindako proposamenen balorazioak** (Udal teknikariek eta ordezkari politikoeak egin dituztenak) azalduko dira
3. **Proposamenak lehenesteko ariketa:** 500.000€ek ez dute proposamen guztiak egiteko aukera ematen, eta beraz, lehendabiziko "filtroa" pasa beharko diegu proposamenei, gaur landuko ditugunen erdiek aurrera egingo dute, eta beste erdiak prozesutik kanpo geratuko dira.
4. **Hurrengo urratsak eta balorazioa:** bilera ireki honen ondoren geratzen diren urratsak azalduko ditugu, eta gaurko saioaren balorazioa egingo dugu.

Prozesuarekin zerikusia duten beste hainbat datu azaldu dira Aholkularitzatik.

### NON GAUDE?

- Prozesuaren lehendabiziko fasean Udal **Aurrekonturako proposamenak** egin genituen, apirila eta maiatza artean. Guztira hernaniarrek 136 proposamen egin zituzten.

- **2.fasea, Balorazioa:** 136 proposamen hauek hartu eta Udal ordezkari politikoeak eta teknikariek baloratu egin dituzte. Uda osoa izan dute proposamen hauek denak baloratzeko.

- **3.fasea, Lehenetsi:** 500.000€ek ez dute hemen ateratako proposamen guztiak aurrera ateratzeko ematen, eta beraz, proposamenen artean aukeraketa bat egin behar da. Aukeraketa hau ez da norberaren nahien arabera egingo, Hernanik dituen beharren arabera baloratuko ditugu, eta horren arabera lehenetasunak ezarri.

- **4.fasea, hautaketa:** proposamenak lehenesten ditugunean, garrantzia handiena hartu duten 30 proposamenekin eskuorri bat egingo da, eta etxez etxe banatuko da, norberak


etxean bere gustukoena aukeratu ditzan.



## 2. PROPOSAMENEN ERREPASOA

Proposamen guztiak baloratu egin dituzte Udalean, eta hauetako batzuk prozesutik kanpo geratu dira. Proposamenak kanpo gelditzeko arrazoiak azalduko dira lehendabizi, eta ondoren, kanpoan geratu diren proposamenak eta hauen arrazoiak aurkeztuko dira.




- ❖ **Jasotako proposamen batzuk ez dira Udalaren kompetentziakoak**, Eusko Jaurlaritzarenak, Gipuzkoako Foru Aldundiarenak, edota beste hainbat erakunderenak izan dira, hori dela eta ezin ditugu Udal Aurrekontuaren barnean txertatu
- ❖ **Udalaren eskumen edo kompetentzia direnek aurrera egin dute**. Proposamen hauen artean,
  - Dagoeneko aurtengo Aurrekontuan sartuta edo egitea **aurreikusita zeuden proposamenak** egon dira, esaterako, Plaza Berriko lurra konpontzea eskatu da, eta hori dagoeneko egin da. Beraz, aurrekusiak zeudenak kanpo geratu dira.
  - **Aurtengo Aurrekontuan aurreikusi gabe zeuden proposamenek**, aurrera egin dute. Hala ere, aurrekontuan sartuta ez zeuden proposamenen artean,
    - Batzuk **kudeaketarekin zerikusia** dute, hau da, proposamen batzuek ez dute aurrekontu jakin bat behar, baizik eta dagoeneko egiten diren gauzetan aldaketak egitea eskatu da. Horrelako proposamenek aurrekonturik behar ez dutela baloratuta, prozesutik kanpo geratu dira.
    - **Teknikoki bideragarriak ez direnak eta 500.000€ak** gainditzen dituztenak ere kanpo geratu dira.
    - Beraz, **aurrera egin duten proposamenak aurrekontu zehatz bati lotutakoak** izan dira.





Aurtengo proposamenei dagokionean, datu orokor batzuk aurkeztu dira ondoren:

- ❖ Jasotako proposamen kopurua: **136**
- ❖ Balorazio tekniko eta politikoetan kanpo: **84**
  - Udalaren eskumena ez direnak: 18
  - Errepikatuak: 4
  - Aurreikusita dago: 10
  - Kudeaketa: 39
  - 500.000€ baina gehiago: 3
  - Beste: 3

Azalpen honen ostean, Luix Intxauspe alkateak kanpoan geratu diren proposamenak eta kanpoan geratzearen arrazoiak azaldu ditu:

 <b>KANPO: AURREIKUSITA DAGO ]</b>	 <b>KANPO: 500.000€ BAINA GEHIAGO ]</b>	 <b>KANPO: EZIN DA ]</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>❖ Fomentar el alquiler social</li> <li>❖ Microcréditos para personas en riesgo de perder vivienda</li> <li>❖ Asesoramiento jurídico para personas en riesgo de perder vivienda</li> </ul> <p>[a]</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>❖ Atsegindegi eta Txantxilla lotzeko ranpa edo eskailera mekaniko bat jartzea</li> </ul> <p>[a]</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>❖ Etxeberri auzoko tunela hobetzea</li> <li>❖ Trenbide azpiko pasabidea hobetu(handitu) oinezko eta autoentzako irtenbide hobeagoa lortuz</li> <li>❖ Zabor ontzi gehiago jartzea merkataritza gunetan</li> </ul> <p>[a]</p>

 <b>KANPO: KUDEAKETAREKIN ZERIKUSIA ]</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>❖ Modificación de direcciones en el sistema de circulación de Hernani</li> <li>❖ Herriko errepideen norabideak gainbegiratzea</li> <li>❖ Errepideetako marrak margotu</li> <li>❖ Ibilgailuen gehiegizko abiadura errespetatzeko neurriak jartzea eskatzen dut</li> <li>❖ Moto eta kotxe trukatu eta zaratsuek sortzen duten kutsadura akustikoa eta bibrazioak ekiditeko neurriak hartzea</li> <li>❖ Martindegi auzoko saneamendua obrak egitea, ur zikinak, estolderiko urak saneamendu orokorrera (Loiolako araztegira) bideratu ahal izateko</li> <li>❖ Oinezkoek erabiltzen ditugun espaloietan gure eskubideak errespetatzen bitarteko gehiago jartzea.</li> <li>❖ Herrian zuhaitz gehiago jartzearen proposamena</li> </ul> <p>[a]</p>

 <b>KANPO: EZ DA UDALAREN ESKUMENA ]</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>❖ Boulevarización de la carretera del circuito y ASFALTADO anti-ruido de toda la longitud de la vía</li> <li>❖ Instalación de un semáforo en el cruce Tellerigain kalea con la GI2132</li> <li>❖ Instalación de nuevas señalizaciones en la A15 antes de la salida de Mandazubi dirección Urnieta-Donostia.</li> <li>❖ A15 eta A5 errepideak insonorizatzeko panelak jartzea</li> <li>❖ Hernani eta Donostiako Errekalde auzoa batzen duen bidegorria egitea // Hernani eta Añorga lotzen dituen bidegorria eta paseoa eraikitzea</li> <li>❖ Hernani eta Ereñozu bidegorri batez lotzea</li> <li>❖ Hernanitik Donostira Urumea ibaiaren ertzetik "ibilbide berde" bat eraikitzea</li> <li>❖ Autobus guztien geralekua Urbieta kalea izatea</li> <li>❖ Línea de bus a Donosti que llegue a Etxeberri</li> <li>❖ Hernani - Donostia bidegorriaren ertzetan zuhaitzak landatzea</li> <li>❖ Gipuzkoako parke botaniko bat eraikitzea</li> <li>❖ Poner en manos de las empresas ayudas para insonorizar motores</li> <li>❖ Poner en mano de la policía municipal más medios y tiempo para controlar el ruido de las empresas y si cumplen las condiciones de licencia de actividad</li> <li>❖ Papelerak sortzen duen kutsadura zein zarata ekiditeko neurriak hartzea, bai usaia ekiditeko filtroak jartzea eta insonorizazio neurriak jartzea.</li> </ul> <p>[a]</p>

Aurkezpen diapositibetan agertzen diren edukiak azaltzen dira ondorengo koadroan:

AURREIKUSITA DAGO	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Fomentar el alquiler social</li> <li>- Microcréditos para personas en riesgo de perder vivienda</li> <li>- Asesoramiento jurídico para personas en riesgo de perder vivienda</li> </ul>
500.000€ BAINA GEHIAGO	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Atsegidegi eta Txantxilla lotzeko ranpa edo eskailera mekaniko bat jartzea</li> </ul>
EZIN DA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Etxeberri auzoko tunela hobetzea</li> <li>- Trenbide azpiko pasabidea hobetu(handitu) oinezko eta autoentzako irtenbide hobeagoa lortuz</li> <li>- Zabor ontzi gehiago jartzea merkataritza guneeetan</li> </ul>
KUDEAKETAREKIN ZERIKUSIA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Modificación de direcciones en el sistema de circulación de Hernani</li> <li>- Herriko errepideen norabideak gainbegiratzea</li> <li>- Errepideetako marrak margotu</li> <li>- Ibilgailuen gehiegizko abiadura errespetatzeko neurriak jartzea eskatzen dut</li> <li>- Moto eta kotxe trukatu eta zaratsuek sortzen duten kutsadura akustikoa eta bibrazioak ekiditeko neurriak hartzea</li> <li>- Martindegi auzoko saneamendua obrak egitea, ur zikinak, estolderiko urak saneamendu orokorrera (Loiolako araztegira) bideratu ahal izateko</li> <li>- Oinezkoek erabiltzen ditugun espaloietan gure eskubideak errespetatu ditzaten bitarteko gehiago jartzea.</li> <li>- Herrian zuhaitz gehiago jartzearen proposamena</li> </ul>
EZ DA UDALAREN ESKUMENA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Boulevarización de la carretera del circuito y ASFALTADO anti-ruido de toda la longitud de la vía</li> <li>- Instalación de un semáforo en el cruce Tellerigain kalea con la GI2132</li> <li>- Instalación de nuevas señalizaciones en la A15 antes de la salida de Mandazubi dirección Urnieta-Donostia.</li> <li>- A15 eta A5 errepideak insonorizatzeko panelak jartzea</li> <li>- Hernani eta Donostiako Errekalde auzoa batzen duen bidegorria egitea // Hernani eta Añorga lotzen dituen bidegorria eta paseoa eraikitzea</li> <li>- Hernani eta Ereñozu bidegorri batez lotzea</li> <li>- Hernanitik Donostira Urumea ibaiaren ertzetik "ibilbide berde" bat eraikitzea</li> <li>- Autobus guztien geralekua Urbietak kalea izatea</li> <li>- Linea de bus a Donosti que llegue a Etxeberri</li> <li>- Hernani - Donostia bidegorriaren ertzetan zuhaitzak landatzea</li> <li>- Gipuzkoako parke botaniko bat eraikitzea</li> <li>- Poner en manos de las empresas ayudas para insonorizar motores</li> <li>- Poner en mano de la policía municipal más medios y tiempo para controlar el ruido de las empresas y si cumplen las condiciones de licencia de actividad</li> <li>- Papelerak sortzen duen kutsadura zein zarata ekiditeko neurriak hartzea, bai usaia ekiditeko filtroak jartzea eta insonorizazio neurriak jartzea.</li> </ul>

Galdera erantzunetarako tarte ireki da ondoren:

- Gestioa esaten den momentuan, zertaz ari gara? Nola jakin gestioan sartu diren proposamenak zertan diren? Luix Intxauspe Alkateak azaldu du kudeaketarekin loturikoak aurrekontu zehatzik gabeko proposamenak direla, eta prozesu honek Udal aurrekontuaren zati bat du eztabaidagai, hori dela eta prozesutik kanpo geratu direla.
- Kudeaketaren gaia ulertzen da, baina ondoren herritarrak nola egin dezakete proposamen horien jarraipena? Udalak kudeaketarekin zerikusia duten proposamenak kudeatu eta garatzeko konpromisoa hartzen du, ahal den neurrian horiek garatzen joateko. Hala ere, prozedura mantsago baten baitan mugitzen dira proposamen hauek.
- Hala ere, proposamen batzuez gain, beste hainbat erabakietan parte hartzearen garrantzia azpimarratzen du herritar batek: dela trafikoaren noranzkoak, aparkalekuen gaia, edota Udalean gestionatzen diren beste hainbat gai. Aurrekontuaren atal baten inguruan eztabaidatu eta erabakitzea ondo dago, baina gauza gehiagotara iristearen beharra azpimarratzen du. Esaterako, hirigintza Plan Orokorrak gure herriaren garapen eredia eta noranzkoa markatzen du, ba herritarrek halako espazioetan parte hartu eta erabakitzea bultzatu beharko litzake, hori badelako hernaniarroi zuzen zuzenean eragiten digun erabaki oso garrantzitsu bat.





### 3. LEHENTASUNAK

Proposamenen balorazioak aurkeztu ostean, bilera irekiaren atal nagusiari ekin zaio, proposamenak lehenesteari, alegia.

Proposamenak lehenesteko, bi irizpide nagusi aurkeztu dira, eta proposamen guztiak horien arabera baloratuko dira lehendabizi. Irizpideak honakoak izango dira:

- ***Proposamen honek gure eguneroko bizitza errazten du?***
- ***Proposamen honen kostua – onura orekatua da?***



Proposamen guztiak banan bana azaldu dira, eta herritar bakoitzak irizpide horien araberako puntuazio bat eman dio proposamen bakoitzari.

Bi irizpide horien ostean, bertaratutako bakoitzak 3 gomets jartzeko aukera izan du gustukoena zituen proposamenei.

Taula honek balorazio eta puntu guztiak jasotzen ditu:



LURRALDE ANTOLAKETA, ERREPIDEAK eta MUGIKORTASUNA	Eguneroko bizitza errazten du		Kostua – onuraren arteko oreka		Pertsonala		Guztira
Florida auzoan aparkalekuen moldaketa: politena parkearen parean, baterian aparkatzeko erabiltzen den eremua pintatzea, aparkalekua margotuz eta hauek hartu behar duten angelua markatuz.	1,0,0,0,2,2	5	1,2,0,-1,1,1	4	1	0,5	9,5
Herrian aparkaleku gehiago sortzeko proposamena: Urbieta kalean autoak baterian aparkatzeko baliabideak jarritz.	1,2,0,-1,1,1	4	1,1,0,-1,1,1	3	0	0	7
<b>Herriko hainbat leku peatonalizatzea: Elkano-Nafar kaleko bidegurutzeta; Aristizabal-Urbieta kaleko bidegurutzeta; Latsunbe kalea-Urbieta kalea eta Marieluts kalea elkartzen dituen bidegurutzeta</b>	0,2,2,2,2,2	10	0,2,2,2,2,2	10	5	2,5	<b>22,5</b>
<b>Ondorengo lekuetan zeharbideak jartzea: Karmelo Labaka kalean zeharbide pare bat daude hasieran eta bukaeran. 120 metroko kale zatian, erdi aldean, zeharbide berria egitea.</b>	2,0,1,1,2,1	7	1,0,1,1,1,1	5	2	1	<b>13</b>

ETXE BIZITZA	Eguneroko bizitza errazten du		Kostua – onuraren arteko oreka		Pertsonala		Guztira
<b>Adquisición de viviendas en el casco histórico para dedicarla al alquiler a bajo coste para jóvenes después de su rehabilitación</b>	0,2,2,2,1,0	7	0,1,2,2,1,0	6	5	2,5	<b>15,5</b>

ZERBITZUAK	Eguneroko bizitza errazten du		Kostua – onuraren arteko oreka		Pertsonala		Guztira
<b>Mejorar la iluminación y aceras del barrio Sagastialde</b>	2,2,1,1,1,1	8	2,2,1,0,1,1	7	3	1,5	<b>16,5</b>
Etxeberriko frontoi atzeko autobus geltokian markesina edo itzaroteko lekuren bat jartzea	1,2,1,1,1,1	7	0,1,1,0,0,0	2	1	0,5	9,5
Kaleetako garbiketa hobetzea, Zenbait auzoetan makina garbitzailea besterik ez da pasatzen eta garbitzaileen beharra dago, izan ere, makina txirikitu askotara ez da iristen.	0,1,0,1,-1,-1	0	-1,0,0,0,0,-1	-2	0	0	-2
<b>Komun publikoa Ave Marian</b>	2,2,2,2,2,2	12	1,2,2,0,1,1	7	1	0,5	<b>19,5</b>

INGURUMENA	Eguneroko bizitza errazten du		Kostua – onuraren arteko oreka		Pertsonala		Guztira
Liburu bat, Hernaniko landareen eta animalien ezaugarriak eta bertako izenak biltzen dituena	1,0,1,0,1,-1	2	1,0,1,1,1,1	5	0	0	7



**Balorazio altuena jaso duten proposamenek aurrera egingo dute prozesuan (erdiak gutxi gorabehera), eta beraz, etxeetan jasoko dugun diptikoan agertuko dira. Puntuazio baxuena jaso dutenak berriz, prozesu honetatik kanpo geratuko dira.**

Horrez gain, bi ekarpen jasotzen dira proposamenen balorazioen inguruan:

- Urbieta kaleko aparkalekuak kalearen lehendabiziko atalean izan beharrean, kale osora zabaltzea.
- Etxebizitzaren gaia dela eta 100.000€rekin benetan inbertsio egoki bat egiteko ez dela nahikoa diru aipatzen da. Diru horrek ez du eraikin bat erosi eta birgaitzeko aukerarik ematen.

#### 4. HURRENGO URRATSAK



---

Gometsen ondoren, saio irekiekin amaitzerakoan geratzen diren urratsak zeintzuk izango diren azaldu dira:

- **Proposamen horiekin galdetegia diseinatuko da**, lehenetsitako proposamenak kontuan hartuta.
- Galdetegiak bilduko dituen proposamenak **auzoetan aurkeztuko dira (8 saio)**, eta horretaz gain, etxeetako postontzietan banatuko da eta internetetik egiteko aukera ere egongo da.
- Hautatutakoak zeintzuk diren azaltzeko aurkezpen publiko bat antolatuko da.

#### 5. SAIOAREN BALORAZIOA

---

	LAN EGITEKO MODUA	BILERAREN EDUKIAK	BILERAKO GIROA
	XXXXX	XXXXX	XXXXXX
	X	X	
